

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

NEKAZARITZA SAILA

MENDI ZERBITZUA

Onura publikoko mendia mugatu eta mugarriztatzeko espedientea jendaurrean jartzea. Iragarki honen bidez, "Campo Mayor" izeneko onura publikoko mendiak —Turiso eta Molinilla herrien jabetzekoa—, eta "La Mogota" izenekoak (579. zenbakikoa, Arreoko herriaren jabetzekoa, biak ere Erriberagoitiko udalerrian kokatuak) elkarrekin duten muga bereizi eta mugarriztatzeko espedientea jendaurrean jarri eta erreklamazioak aurkezteko epea abiarazten da, Arabako Lurralde Historikoko Mendien Foru Arauan eta Mendien Erregelamenduan ezarritakoaren arabera

Behin amaiturik Campo Mayor izeneko mendi publikoak (Turiso eta Molinilla herrien jabetzekoa da) eta "La Mogota" izeneko onura publikoko mendiak (579. zenbakikoa, Arreoko herriaren jabetzekoa eta biak ere Erriberagoitiko udalerrian kokatuak) elkarrekin duten muga behin-behinean bereizteko eta mugarriztatzeko lanak, jakinarazten da jendaurrean jartzen dela mugatze eta mugarriztatzeko espedientea, Arabako Foru Aldundiaren Mendi Zerbitzuaren bulegoetan (Probintzia plaza, 4. zk., 1. solairua, 01001 Gasteiz), interesdunek aztertu ahal izan dezaten, iragarki hau argitaratu eta hamabost eguneko epean. Mendien Foru Arauak (11/2007 Foru Araua, martxoaren 26koa) ezarritakoarekin eta Mendien Erregelamenduak (otsailaren 22ko 485/1962 Dekretuak onartua) 120. eta 121. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik egiten da hala.

Era berean, iragarki hau argitaratu ondoko hogeita hamar egunean zehar, onartu egingo dira zuzenbidearen arabekoak diren erreklamazioak; Arabako Foru Aldundiaren Mendi Zerbitzuari zuzendu behar zaizkio, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean aurkeztuta (Probintzia plaza, 5, 01001 Gasteiz).

Mugarriztatze lanen kontra erreklamazioa aurkezteko, beharrezkoa da mugarriztatze lanetan bertan egon izana norbera edo norberak izendatutako ordezkari bat.

Jabetzari buruzko erreklamazioez den bezainbatean, erreklamazioan berariaz aipatu behar da administrazio bidea amaitzeko asmoz aurkeztu dela, gero arlo zibileko epaitegietara jotzeko alde aurreko izapide gisa.

Gasteiz, 2016ko urriaren 27a

Nekazaritza zuzendaria

ALFREDO SAEZ DE CASTILLO BELTRAN DE OTALORA